

DATU OROKORRAK	
Izenburua (proiektua)	Lizentzia
KONPOSITOREEN AHOTSAK	Konpositoreen ahotsak © 2024 by BatuArte is licensed under CC BY-NC-SA 4.0
Inplikaturiko arloak, jakintzagaiak edo eremuak	Maila
Arte hezkuntza: musika, audiobisualak eta euskara	LH 6. maila
Saio kopurua	
2. hiruhileko osoa	
Ikas-egoeraren markoa	
Testuingurua : Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek generoa eta musika uztartuko dituzte proiektu honetan. Emakume konpositoreen lana ezagutaraztea eta genero-desberdintasunei buruz hausnartzea izango da helburu nagusia. Proiektuak arte-adierazpena, hezkidetza eta konpetentzia digitalak garatzeko aukera eskainiko die. Abiapuntua: Taldeetan, ikasleek bi konpositore ikertuko dituzte: emakume bat eta gizon bat, garai desberdinetakoak. Haien bizitzari, lanik garrantzitsuei eta testuinguru historikoari buruzko informazioa bilduko dute, eta genero-desberdintasunaren inguruan hausnartuko dute. Informazio horrekin, elkarrikketa bat idatziko dute, non emakume konpositoreak gaur egungo berdintasunaren aldeko proposamena egingo duen. Azken ekoizpena edo produktua: Taldeek elkarrikketa grabatuko dute chroma key erabiliz, testuinguru historikoari egokitutako fondoekin. Bideoetan konpositoreen lanak eta musika-irudiak txertatuko dira. Azken emaitza ikaskideen aurrean aurkeztuko dute, genero-berdintasunaren eta musika arloko historiaren inguruan hausnarketa sustatuz.	

Proposamenaren xedea
Musika-konpositoreen bizitza eta lanen inguruko ikerketa egitea, historian zehar generoaren eta sexu-orientazioaren arabera izandako desberdintasunetan hausnartuz, eta horren inguruan ekoizpen artistiko bat sortzea (chroma key teknikarekin elkarriketa bat eta ikus-entzunezko lan bat).
Helburu didaktikoak
→ Elkarriketa-gidoia sortu eta chroma key erabiliz grabatzea. → Genero-berdintasunaren inguruko kontzientzia garatzea eta emakumeek historian zehar jasandako desberdintasunak ulertzea. → Musika arloko bi konpositoreen (emakume bat eta gizon bat) bizitza, lanak eta testuinguru historikoa aztertzea. → Elkarriketa dramatizatu bat sortzeko gidoi bat idaztea, talde-lanean. → Chroma key teknologiaren bidez ikus-entzunezko proiektu bat sortzeko gaitasun teknikoak garatzea. → Musika konpositoreen lan garrantzitsuenak identifikatzea eta horiek besteekin partekatzeko trebetasunak garatzea. → Talde-lanean komunikatzeko eta antolatzeke gaitasunak hobetzea. → Elkarriketa bidez norberaren ideiak modu sortzaile eta eraginkorrean adieraztea. → Hausnarketa kritikoa sustatzea, gaur egungo berdintasun-politikak proposatzeko eta ulertzeko.

ARGUDIAKETA CURRICULARRA				
Funtsezko kompetentziak	Deskriptoreak	Kompetentzia espezifikak	Ebaluazio irizpideak	Oinarrizko jakintzak
ARTE HEZKUNTZA				
a) Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	HKK1, HKK2,, HKK5, STEAM3, STEAM4, KD1, KD2, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3,	k1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA: Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera	1.1 Kultura- eta arte-adierazpenen bereizgarri diren zenbait korrante, estilo eta genero aztertzea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez, genero-ikuspegia txertatuz.	Jakintza komunak 1 Arte-sorkuntzari eta -interpretazioari lotutako lanbideak. Ezagutza eta balorazioa

d) Konpetentzia digitala b) Konpetentzia matematikoa e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa f) Herritartasunerako konpetentzia, g) Ekintzailtza-konpetentzia h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia	EK1, EK3 KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4	aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibilitatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko. K2. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA: Askotariko inguruneetako ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenei buruz ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasiz eta hainbat bide eta baliabide erabiliz, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna	1.2 Kultura- eta arte-adierazpen nabarmenenak deskribatzea, digitalak barne, haien ezaugarriak irekitasunez miazuz eta haien artean harremanak ezarriz. 1.3 Kultura- eta arte-adierazpen analogikoen eta digitalen aberastasuna miaztea, haiek sortzen dituen aniztasuna ezagutuz, errespetatuz eta baloratuz, eta haien elementuren bat bereganatuz. 2.1 Estrategiak garatzea kultura- eta arte-adierazpenei buruzko informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeo, zenbait kanal eta sarbide analogiko eta digitalen bitartez, kolaborazio-lanean. 2.2 Hainbat inguruneetako ondarea osatzen duten zenbait kultura- eta arte-adierazpenen esanahia konparatzea, horien bereizgarri diren elementu nagusiak analizatuz eta norberaren balorazio-irizpideak garatuz, elkarriketarako jarrera irekia eta errespetua erakutsita. 3.2 Helburu espezifikoko batera egokitutako zenbait adierazpen-	4. Baliabide digitalak. Arte-produkzioak transformatzeko, sortzeko eta ezagutarazteko grabazioko eta edizioko aplikazio informatikoak. Beste batzuek sortutako edukiak erabiltzeko eta banatzeko lizentziekiko errespetua. A- Musika Hezkuntza: Pertzepzioa eta analisisa A1 Zenbait korrante estetiko, jatorri eta garaitako musika-proposamen bokal eta instrumentalak. Grabazio eta kontzertu entzunaldiak. C. Ikus-entzunezko Hezkuntza Pertzepzioa eta analisisa C1 Ikus-entzunezko proposamenak: zinema, publizitatea, dokumentalak, telesailak, eduki digitalak. C.3 Ikus-entzunezko estilo, genero eta formatuei buruzko oinarriko nozioak: irudi finkoa eta mugikorra. Fikzioa eta ez-fikzioa. Animazioa. Sorkuntza eta interpretazioa C.4 Ikus-entzunezko elementuen erregistroa eta edizioa (irudia, audioa eta partiturak): kontzeptuak, teknologiak, teknikak eta oinarriko
--	--	--	--	--

		zenbait testuingurutan garatzeko. k3. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA: Soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimentatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko. k4. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA: kolaborazioako kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz,	proposamen pertsonal sortzea eta partekatzea, ideien, sentimenduen eta emozioen adierazpenaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz, enpatia agerian jarritz, besteen gaitasunak baloratuz eta egikaritzeko modua hobetuz. 4.1 Kultura- eta arte-produkzio analogikoak eta digitalak planifikatzea, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik hitzartutako helburuak beteko dituen azken emaitza lortzeko kolaborazio-lanean jardunez. 4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzatako elementuak erabiliz eta konpromisoa, parte-hartze aktiboa eta errespetua erakutsiz, baita ingurune digitaletan ere. 4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio- estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan	baliabideak. Bilatzeko, iragazteko eta baloratzeko estrategiak. C.5 Istorio errazak: konposizioa, bakarka eta taldean, komunikazio- eta adierazpen-asmoarekin, berregiteko eta kontatzeko. C.6 Ikus-entzunezko produkzioak: sorkuntza-prozesuaren faseak eta rolak. Kolaborazio-lana, eta <i>prozesuak genero eta formatu desberdinetan duen garrantzia</i>. C.7 Produkzio multimodalak: errealizazioa. Ikus-entzunezko hizkuntza multimodalaren ezaugarriak. Oinarritzko animazio-teknikak. C.8 Ikus-entzunezko mezuen esperimentazioa eta zabalkundea: prozesu teknikoak
--	--	--	--	---

		sormena, autorearen nozioa eta pertenezaren zentzu garatzeko.	oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez	
EUSKARA				
a) Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia e) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa g) Ekintzailetza-konpetentzia,	HKK1 HKK2, HKPSII1, KPSII3, KPSII5, EK1, EK2, EK3	2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarritzko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-premiei erantzuteko. 4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarritzko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitze eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteko.	2.1 Zailtasun handiagoko ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu ulertzea, ideia nagusiak eta mezu esplizituak eta inplizituak ezagutuz, eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementuak modu kritikoan baloratuz, baita, laguntzarekin, oinarritzko elementu formal batzuk er 4.1 Zenbait xederi eta interesi erantzuten dioten testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz, zuzeneko inferentziak laguntzarekin eginez eta hitzez hitzeko interpretazioa gaituz. 4.2 Testu idatzi eta multimodalen edukia eta oinarritzko alderdi formalak eta ez hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz eta testu horien kalitatea, fidagarritasuna eta	B. Komunikazioa 1. Hizkuntzaren erabilerak Komunikazio-egintzako osagaien arteko elkarrekintzak (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa, kanala, erregistroa). Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa, informazio-inferentziak) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak. Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa. Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).

		5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarritzko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteko. 8. Ikaslearen garapenerako egokiak diren literatura-obra edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarri eta literatura-generoa eta haren oinarritzko konbentzioak	egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-xedearen arabera. 5.1 Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzi eta multimodalak zenbait euskarritan sortzea, komunikazioeskarrietarako diskurtso-eredurik egokiena aukeratuz, edukiaren koherentziari eutsiz eta landutako zuzentasun gramatikal eta ortografikoko irizpideak errespetatuz, baita testu idatzi bat sortzeko faseak ere. 5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan modu aktiboan parte hartzea, zailtasunak eta norberaren mugak identifikatuz, horiek gainditzeko laguntza bilatuz, eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa baloratuz 8.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan modu aktiboan parte hartzea, zailtasunak eta norberaren mugak identifikatuz,	Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu. 2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza Komunikazio-egintzaren araberrako ahoskera eta intonazio egokiak. 3. Irakurmena Komunikazio-asmoa eta oinarritzko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarriketa, azalpena eta argudioak. 4. Idatzizko produkzioa -Nolabaiteko zailtasuna duten testu idatziak eta multimodalak planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarritzko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak eta zenbait komunikazio-helbururekin. 5. Informazio alfabetatzea -Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz. -Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.
--	--	---	---	---

		identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer- eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio-iturri gisa ezagutzen hasteko. 9. Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.	horiek gainditzeko laguntza bilatuz, eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa baloratuz 9.2 Norberaren eta besteen testuak gero eta autonomia handiagoz berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz	-Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz.
--	--	---	---	--

METODOLOGIA		
Printzipioak	Antolaketa	Baliabideak
<u>Aniztasunaren trataera: IDU, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala</u> Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala irakaskuntzaren ikuspegi inklusiboa eta begirada praktikan aplikatzeko proposamenak konbinatzen dituen eredu da. Hiru printzipio metodologiko proposatzen ditu: inplikazio modu anitz, informazioa irudikatzeko modu anitz eta ikasteko ekintza eta adierazpen modu anitz ematea. IDU printzipio metodologiko hauek aktibatuko dira ikas-egoera honetan: 1. Informazioa adierazteko moduei dagokienez: • Informazio bisualerako alternatibak eskaintzea: irudien ahozko testu-deskribapenak edo aurkezpen bisualak ematea. • Bitarteko anitzen bidez ilustratzea: oinarritzko jakintzak aurkeztea irudikapen sinbolikoaren modu batean (ilustrazioak, taulak, mugimendua, bideoa, argazkia, etab.) 2. Ikasteko ekintza- eta adierazpen-moduei dagokienez: • Komunikaziorako bitarteko ugari erabiltzea: diskurtsoa, musika, mugimendua, etab. • Autokontrola eta hausnarketa gidatzeko galderak egitea, aurrerapenaren irudikapenak erakustea, autoebaluazio eta koebaluazio estrategien ereduak ematea. 3. Inplikazio-moduei dagokienez: • Onarpen- eta laguntza-giroa sortzea. • Ikaskuntza kooperatiboko taldeak sortzea, ikasleei ikaskideei edo irakasleei laguntza noiz eta nola eskatu erakusten dieten adierazleak ematea, talde-lanerako itxaropenak sortzea. • Giro motibatzailea sortzea, jarduera aktiboak eginez	Sortutako ikas-egoera metodologia aktiboetan oinarrituta dago. Abiapuntua, ikasleen jatorria eta aurrezagutzak izango direlarik. Ikasleak dira protagonistak eta modu aktiboan parte hartzen dute beren ikaskuntza-prozesuan. Ikaslea ikaskuntzaren erdigunean jarritz. • Ikasleen taldekatzea: lana bikoteka edo hirukoteka burutu beharko da. • Espazioaren antolakuntza: Musika gela, ikasleen gela... • Irakasleak antolatzea: Printzipioz, musikako irakaslea honen arduradun bakarra izango da. Horretarako A. hezkuntza bere osotasunean emateko aukera euki beharko du.	• Ekintzak garatzeko beharrezko materiala: ○ Ordenagailuak, prestatutako B.digitaleko materiala, material fungiblea... • Irakasleak prestatutako baliabide digitalak: ○ Gizon _____-emakume konpositoreak

JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA MUSIKA, EUSKERA ETA AUDIOBISUALAK			
HASIERAKO FASEA			
MUSIKA			
Ataza/Jarduera	<u>Lorpen-adierazleak</u>	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
1. <u>Taldeak antolatu,ardurak banatu</u> eta lan-plana egitea Gaiaren aurkezpena. Jarduera honen bidez, ikasleen aurretiko ezagutzak eta jarrerak identifikatzen dira, eta ikasleen jakin-mina piztea bilatzen da, aniztasunaren inguruko hausnarketa sustatuz.	-Aurrezagutzak /elkarrizketa	Talde-dinamiken behaketa.	<u>.BEHAKETA SISTEMATIKOA</u> - <u>Kontrol zerrenda</u>
2. Sarrera eta motibazioa Ikasleak 4-5 pertsonako taldeetan banatuko dira (ikasleen kopuruaren arabera) eta irakasleak galdetuko die ikasleei: ○ Zer dakizue musika-konpositoreei buruz? ○ Ezagutzen al duzue emakume konpositorerik?	Talde-lanerako antolaketa eta parte-hartzea: ● Ikasleek modu aktiboan parte hartzen dute taldeetan, konpositoreen inguruko ezagutza partekatuz eta galderei erantzunez. Hasierako ezagutzaren eta iritziaren adierazpena:	Taldeakako txostenetan jasotako informazioa.	-Taldekako elkarrizketa

Ikasleek, talde txikitan, konpositoreen izenak apuntatuko dituzte paperean eta irakasleak bildutako izenak zerrenda batean idatziko ditu. Talde bakoitzari bi konpositore aztertzea esleituko zaie: emakume bat eta gizon bat Talde bakoitzak, esleitutako konpositoreen inguruko informazioa bildu behar du: ■ Bizitzaren eta garaiko testuinguruaren deskribapena ■ Musikaren ekarpen nagusiak ■ Genero eragina haien ibilbidean eta gizarteak horren aurrean izandako jarrerak. ■ Bere bizitzari buruz zerk deitu dizue atentzioa? Informazioa jasotzeko web-orria hau izango da. eta FITXA honetan jasoko dute. Ondoren, talde bakoitzak, labur, aukeratutako konpositoreen izenak eta lehen inpresioak partekatuko ditu besteekin.	● Ikasleek musika-konpositoreen izenak eta haien inguruko aurrez dituzten ezagutzak zerrendatzen dituzte, eta emakume konpositoreak ezagutzen dituzten ala ez azaltzen dute. Interesaren eta jakin-minaren erakustea: ● Talde bakoitzak esleitutako konpositoreen inguruko lehen inpresioak modu laburrean eta argian partekatzen ditu, eta haien bizitzari edo lanari buruzko intereseko elementuak azpimarratzen ditu.		
3. Hausnarketa gidatua Jarduera honek hausnarketa kritikoa eta enpatia sustatzeko ikasleengan balioko du, eta ikasleei aukera emango die euren iritzia emateko eta aldaketa positiboak proposatzeko.	Hausnarketa kritikoa eta parte-hartze aktiboa: ● Ikasleek galderei modu argi eta kritikoan erantzuten diete, emakume eta gizon konpositoreen	-Talde bakoitzak idatzitako hausnarketaren ondorio nagusiak eta iradokizunak.	BEHAKETA SISTEMATIKOA Kontrol zerrenda

Irakasleak jarduera aurkeztuko du: "Orain arte landutako konpositoreetan oinarrituta, musika-munduan emakumeen egoera aztertuko dugu eta ideia berriak proposatuko ditugu gaur egungo berdintasuna sustatzeko." Taldeei bi galdera nagusiak azalduko zaizkie, hausnarketa gidatzeko: 1. Zer zailtasun izan zituzten emakumeek musika-munduan aurrera egiteko? Gizonezkoek antzeko zerbait bizi izan zuten? 2. Zuen ustez gaur egun musikari guztien berdintasuna dago? Zenbat talde gizonezkoak bakarrik osatutak ezagutzen dituzue? Eta emakumezkoenak bakarrik? Hausnarketa partekatu ondoren, irakasleak emakume konpositore baten bizitzako istorio laburra edo aipu esanguratsu bat partekatuko du (adibidez, Clara Schumann-ek zioen moduan: "Emakume izateagatik askotan nire konposizioak ez dira serio hartuak izan").	arteko desberdintasunak aztertuz eta hausnartuz. Egungo egoeraren analisia: • Ikasleek gaur egungo musika-munduan genero-berdintasunaren inguruko iritzia ematen dute, datu edo adibide errealetan oinarrituta. Proposamen berritzaileen formulazioa: • Ikasleek gaur egungo berdintasuna sustatzeko ideia berriak proposatzen dituzte, hausnarketan oinarrituta eta egoera hobetzeko konpromisoa erakutsiz.	-Berdintasuna sustatzeko ideiak jasotzen dituen dokumentua.	
4. Talde-lana: galderen inguruko hausnarketa Talde bakoitzak galderen inguruko iritziak eztabaidatuko ditu eta ideiak apuntatuko ditu. Irakasleak gidatzeko ohar batzuk emango dizkie: ○ Lehenengo galdera: Pentsa ezagututako konpositoreetan zer oztopo izan zituzten emakumeek (adibidez, hezkuntza faltak, familiaren presioak, lan-aukerak ez izatea).	Hausnarketa taldean egiteko gaitasuna: • Talde bakoitzak galderen inguruko ideiak modu egituratuan eztabaidatzen ditu, denek iritzia emateko aukera izanik. Zailtasunen eta proposamenen identifikazioa:	-Taldea bakoitzak galderen inguruan eztabaidatutako ideiak idatzitako fitxa.	Fitxa

○ Bigarren galdera: Zein ideia izango zenukete gaur egun haiei laguntzeko? (adibidez, emakume konpositoreen musika gehiago programatzea kontzertuetan, hezkuntzan aniztasunaren inguruko materialak sartzea). Talde bakoitzak labur aurkeztuko ditu bere ideiak: ○ Zein izan dira emakumeek izan dituzten zailtasun nagusiak? ○ Zer proposatzen dute gaur egun berdintasuna lortzeko? Irakasleak ideia nagusiak jasoko ditu arbela digitalean edo kartulina batean (bi zutabe: "Zailtasunak" eta "Proposamenak").	● Ikasleek emakume konpositoreek musika arloan izan dituzten zailtasunak argi eta sakonki identifikatzen dituzte, eta gaur egungo egoera hobetzeko proposamenak egiten dituzte. Aurkezpen argia eta ideien antolaketa: ● Talde bakoitzak bere ideiak modu labur eta ulergarrian aurkezten ditu, irakaslearen gidaritzarekin "Zailtasunak" eta "Proposamenak" zutabeetan kokatzeko.		
5. Banakako hausnarketa Irakasleak galdetuko du: ○ Zer ikasi dugu gaur emakumeen egoerari buruz musika-munduan? ○ Zergatik da garrantzitsua berdintasunaren alde lan egitea arlo guztietan, musikan barne?	Berdintasunaren garrantziaren ulermena: ● Ikasleek musikan eta gizartean berdintasunaren alde lan egitearen beharra eta garrantzia modu argian adierazten dute. Parte-hartze aktiboa eta hausnarketa kolektiboa: ● Ikasle guztiek parte hartzen dute hausnarketa kolektiboan, euren iritzia eta ideiak modu egokian partekatuz.	-Ikasle bakoitzak galdera nagusiei buruzko ondorioak idatziko ditu banakako fitxa batean:	Banakako hausnarketa

GARAPEN FASEA			
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
EUSKERA			
1. <u>Taldeak antolatu,ardurak banatu</u> eta lan-plana egitea. IDEIEN BILKETA Elkarriketa-gidoiaren egitura pentsatu (sarrera, galderak eta amaiera). -SARRERA Elkarriketatzaileak musikagilearen hitzaurre txiki bat egiten du, bere herriari, jaio-urteari eta garai historikoari buruz hitz egiten du. -GALDERAK ■ Musikaren hastapenak ■ Emakumea izateagatik zailtasunak. ■ Gizonezkoa izateagatik zailtasunak ■ Lan esanguratsuenak eta horien kopurua. ■ Bizitzako lan desberdinak ■ Beste batzuk... -AMAIERA	Ardurak modu eraginkorrean banatzea: • Talde bakoitzeko kideek lan-plana osatzen dute, ardurak modu egokian banatuz eta denek ekarpena egiteko aukera bermatuz. Elkarriketa-gidoiaren egitura eta edukia definitzea: • Ikasleek elkarriketaren egitura pentsatzen dute (sarrera, galderak eta amaiera), eta galdera egokiak sortzen dituzte landutako informazioan oinarrituta. Ideien argitasuna eta koherentzia: • Taldeak gidoia prestatzeko ideiak modu antolatuan eta koherentean biltzen ditu, elkarriketaren helburu didaktikoak betez.	Txantiloia: gidoia idazteko eredua (sarrera, galderak, erantzunak, amaiera).	<u>Anekdotarioa (BEHAK ETA SISTEMATIKOA)</u> <u>Taldean egunerokoa</u> <u>Gidoiaren txantilloia</u>

■ "Zer proposatuko zenuke gaur egun, zure garaian emakume gisa bizitako zailtasunak beste emakume batzuek ez bizitzeko?" Gidoia prestatu			
2. Rolen banaketa eta entsegua Taldeko kideek bakoitzaren rola adostu: kazetari bat, bi konpositore eta teknikari bat (kazetaria ere izan daiteke). Talde bakoitzak entsegua egingo du. Elkarrizketa antzeztu, intonazioa eta jarrerak praktikatu eta, ahal den neurrian, konpositoreen ahotsean atzerriko azentua jartzea. Taldeko kideek elkarri iradokizunak eman beharko dizkiete.	Rolen banaketa eta lankidetzatza: - Taldeko kideek bakoitzaren rola modu parte-hartzailean adosten dute, eta taldekideen artean lankidetzatza eta komunikazioa sustatzen dute. Antzerki-trebetasunak praktikatzatza: - Taldeak elkarrizketa antzeztu egiten du, intonazioa, jarrerak eta ahotsaren erabilera egoki praktikatzeari arreta jarritz, eta ahalik eta gehien hobetzen saiatuz. Eraikitzaileko feedbacka eta iradokizunak: - Taldeko kideek elkarri iradokizunak eta feedbackak ematen dizkiete, elkarrizketa hobetzeko eta pertsonaien egokitasuna areagotzeko.	Gidoia	Taldeen egunerokoa

3. Chroma key grabaketarako prestaketa Elkarrizketarako beharrezko objektuak aukeratu, giroa hobeto irudikatzeko: ■ Konpositorearen inguruko objektuak: adibidez, luma bat eta tinta (garai klasikoa), musika-partiturak, edo instrumentu bat (biolina, klabezinaren irudikapena, etab.). ■ Jantzi sinpleak: garaiaren arabera, esate baterako, kapa bat, musika-zapi bat, edo soineko bat. Ez da beharrezkoa jantzi osoa, baina iradokitzailea izan dadila.	Sormen eta koherentzia testuinguru historikoaren irudikapenean: • Ikasleek testuinguru historikoari egokitutako objektuak eta elementuak aukeratzen dituzte, horiek elkarrizketaren giroarekin koherenteak izan daitezzen. Atrezzoaren eta jantzien erabilera egokia: • Ikasleek objektuak eta jantziak modu egokian erabiltzen dituzte, garai historikoarekin loturiko elementuak aukeratuz eta pertsonaien karakterizazioa hobetuz. Grabaketaren kalitatea eta irudiaren integrazioa fondo digitalarekin: • Ikasleek chroma key teknika egokia erabiltzen dute, irudiak eta fondo digitala modu osagarrian eta kalitatez integratuz, grabaketaren estetikarekin koherentea izan dadin.	• Chroma key teknologiaren erabilera azaltzea eta fondo digitalak gehitzeko softwarea eskaini. • Atrezzo eta jantzien iradokizunak egitea, eta irudi historikoen bilaketan laguntzea.	
--	--	--	--

2. Entsegua: Praktika egin grabazioaren aurretik, eszenaren argiztapena eta ahotsa egokiak direla ziurtatzeko. Talde bakoitzak bere gidoia eta atrezzoak probatuko du, konpositorearen paperean naturaltasuna eta sinesgarritasuna lantzeko.	-Ikasleek grabazioaren aurretik eszenaren argiztapena eta ahotsa egokiak direla ziurtatzen dute, gidoia eta atrezzoak probatuz, konpositorearen papera naturaltasunez eta sinesgarritasunez lantzen duten bitartean.	gidoia	Gidoiaren ebaluazio-errubrika. Autoebaluazioa
AUDIOBISUALA			
3. Grabaketa: Elkarrizketa grabatuko dute gidoia eta entseguetan landutako elementuak erabiliz. Fondo berdea: - Fondo berde garbia eta ondo argiztatua prestatu. Itzalak saihesteko argiak modu uniforme batean kokatu. Eszenaren antolaketa: - Elkarrizketarako behar den atrezzoak eta dekorazioak kokatu (adibidez, partiturak mahai batean, edo konpositoreak idazten ari direla iradokitze elementuak). Mikrofonoa eta argiak:	Grabaketaren kalitatea eta gidoiaren erabilera: - Taldeak gidoian eta entseguetan landutako elementuak modu koherentean aplikatzen ditu elkarrizketa grabatzen, testuinguru historikoa eta elkarrizketaren fluiditate egokitasuna mantenduz. Fondo berdearen prestaketa eta argiztapena: - Fondo berdea garbi eta ondo argiztatua prestatu da, itzalak saihestuz eta argiak uniformeki kokatuz, grabaketaren kalitate optimoa lortuz.	Behaketa zuzena. Elkarrizketa	- Anekdotarioa (BEHAK ETA SISTEMATIKOA) - Taldeen egunerokoa

■ Ahotsa ondo grabatzeko mikrofono egokiak erabili. ■ Argiztapen gehigarria beharrezkoa bada, parte-hartzaileen aurpegiak eta atrezzoak ondo ikus daitezen zaindu. Taldearen kokapena eta rolak: ■ Elkarrizketatzaileak eszenaren erdigunean kokatu, konpositoreen artean. ■ Konpositore bakoitza bere testuingurua irudikatzeko behar den jarreran kokatu (adibidez, bata idazten eta bestea partitura bat erakusten). Elkarrizketa grabatzea: ■ Elkarrizketatzaileak sarrera bat egingo du, bi konpositoreak aurkeztuz eta elkarrizketa testuinguruan kokatuz. ■ Galderei txandakaka erantzuteko sekuentzia mantendu, gidoian oinarrituta. ■ Konpositoreen erantzunak garaiaren tonua eta ikuspegia errespetatuz eman behar dira. Arauek grabazioan zehar: ■ Jarraikortasuna: Elkarrizketa eteteko beharrik ez izateko, gidoia aurrez ondo landu eta jarraitu. ■ Erroreak zuzentzea: Akatsen bat gertatuz gero, grabazioa eten, atzera egin eta berriro grabatu atal horretatik.	Eszenaren antolaketa eta atrezzoaren erabilera: • Elkarrizketa eszenarako beharrezko atrezzoak eta dekorazioa ondo kokatzen dira, testuinguru historikoa modu egokian irudikatuz (adibidez, partiturak edo konpositoreek idazten ari direla iradokitzen duten elementuak). Mikrofonoaren eta argiztapenaren egokitasuna: • Mikrofono egokiak erabiltzen dira ahotsaren grabaketa garbia eta argia lortzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, argiztapen gehigarria erabiltzen da parte-hartzaileen aurpegiak eta atrezzoak ondo ikus daitezen.		
--	---	--	--

■ Soinua eta ahoskera: Parte-hartzaileek ahots ozen eta argia mantendu behar dute. Grabazioa amaitzean elkarrizketatzaileek amaiera bat egingo dute, elkarrizketa laburbilduz eta testuinguru historikoa azpimarratuz. Eszenan parte hartu duten guztiek agurra egin dezakete. Grabatutako bideoa taldean ikusi. Akatsen bat antzeman ez gero (soinua, ikusgarritasuna, atrezzoaren kokapena), eszena horiek berriro grabatzeko denbora hartu.			
4. Edizioa Talde bakoitzak, gidoian oinarrituta, konpositoreen garaia eta testuingurua irudikatzeko irudiak edo bideoak bilatu beharko ditu. Adibidez: XVIII. mendeko jauregi bat, musika-areto bat, edo garai horretako kale bat. Irudiak bilatzeko gomendioak: • Erabili interneteko baliabide seguruak edo eskuragarri dagoen irakasgaietako materiala. • Irudiaren kalitatea eta koherentzia historikoa zaindu. Gehitu behar diren elementuak argi izan:	Chroma key teknika erabiltzeko gaitasuna: • Ikasleek chroma key teknika modu egokian eta teknikoan erabiltzen dute, irudiak eta fondo digitala modu koherentean integratuz. Testuinguru historiko eta artistikoaren aurkezpen bisuala: • Ikasleek testuinguru historiko eta artistikoaren irudikapena modu bisual eta sormenezko batean aurkezten dute, ikusleari garaia eta testuinguruaren ulermena errazteko. Konposizio garrantzitsuen	Behaketa zuzena. Elkarrizketa	- Anekdotarioa (BEHAK ETASISTEMATIKOA) - Taldeen egunerokoa

■ Konpositoreen konposizio nagusien irudiak edo partiturak (adibidez, lan bat jotzen ari den eszenak, edo musika-irudiak). ■ Tituluak eta kredituak (ikusi beheko puntuak). Chroma key softwarea erabiltzea: Aukeratu erabiliko den softwarea (adibidez, iMovie, Adobe Premiere, DaVinci Resolve, edo Kinemaster mugikorrerako). Fondo berdea ezabatzeko urratsak: ■ Ireki bideo fitxategia softwarean. ■ Hautatu chroma key aukera eta ezabatu fondo berdea. ■ Gehitu hautatutako fondo digitala eta posizionatu elkarriketako pertsonaiak ondo kokatuta egon daitezen. Elementu gehigarriak sartzea: Konpositoreen konposizio nagusiak aurkeztea: ■ Elkarriketa grabazioan, une jakin batean konpositoreen lanik ezagunenak aipatzen direnean, gehitu irudi edo bideo txiki bat haiei buruz: 1. Partiturak, instrumentuen argazkiak, edo obrak jotzen dituzten pertsonen irudiak.	txertaketa eta erabilera didaktikoa: ● Ikasleek konpositoreen garrantzitsuenetako lanak modu egokian txertatzen dituzte, haien erabilera didaktikoa eta musikaren kontextualizazioa bultzatuz. Titulu eta kredituen zehaztasuna eta sormena: ● Ikasleek tituluak eta kredituak modu zehatz eta sormen handiz sortzen dituzte, bideoaren egitura eta edukia islatzen dituztenak.		
--	---	--	--

2. Obra esanguratsu baten musika-fondo laburra erabili, copyright-a errespetatuz (baldin eta erabilera posiblea bada). Tituluak eta kredituak: ■ Hasierako tituluak, taldearen izena eta elkarrizketan parte hartzen duten konpositoreen izenak azaldu. ■ Elkarrizketaren amaieran, gehitu kredituak: Taldeko partaideen izenak eta bakoitzaren rola (elkarrizketatzailea, konpositoreak, editorea, eta abar). Erabilitako iturriak (irudiak, musika, eta abar).			
AMAIERAKO FASEA			
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
AUDIOBISUALA			
1. Entsegua eta zuzenketak: Ikasleek editatutako bideoa taldean ikusiko dute, akatsak edo hobekuntzak identifikatzeko, eta horiek zuzentzeko iradokizunak eginez. Horretarako, fondoaren kalitatea, ahotsen eta			

musika-fondoaren bolumen oreka, eta titulu eta kredituen irakurgarritasuna aztertuko dituzte. Ondoren, talde bakoitzak bilduko ditu bere iradokizunak eta zuzenketak. Taldeak, elkarrekin, hurrengo urratsak proposatuko dituzte bideoaren kalitatea hobetzeko. Zuzentzeko puntu nagusiak honako hauek izango dira: ○ Fondoaren eta pertsonaien arteko integrazioa. ○ Ahotsen eta musika-fondoaren bolumenaren oreka. ○ Titulu eta kredituen irakurgarritasuna.			
Lanaren amaiera eta aurkezpena: ○ Editatutako bideoa esportatu formatu egokian (adibidez, MP4 edo MOV). ○ Talde bakoitzak bere bideoa aurkeztuko du klasean, eta taldeek elkarri iruzkin eraikitzaileak egingo dizkiote. Bukatzeko, auto-ebaluazioa eta talde-ebaluazioa egingo da. Talde ebaluazioa egiteko talde bakoitzak pantalla kaptura egingo du eta irakasleari emailez bidaliko dio.		Ahozko aurkezpena eta bideoa. Auto-ebaluazio galdetegia, talde feedback-a.	Galdetegiak, eztabaidak, elkarriketak, errubrikak. Anekdotarioa (BEHAKETA SISTEMATIKOA) Taldeen egunerokoa Taldeen ebaluazioa Autoebaluazioa

Erabilitakoa

- OINARRIZKO HEZKUNTZA. CURRICULUM DEKRETUA “2023/06/09an eguneratua”
- EAEKO IRTEERA PROFILA

- Sortutako Biltegi Digitala: [Gizon-emakume konpositoreak](#)
- **Errubrikak:** [Gidoiaren ebaluazio-errubrika](#), [Errubrika gidoia taldeka](#)
- Irakaslearen [kontrol zerrenda](#) eta [behaketa sistematikoa](#)